

# 1990eko euskal liburugintza (4)

JOAN MARI TORREALDAI



UNESCO-K gomen datzen diuen bezala 1990eko produktzioa sailkatuz gero, hiru sail nagusitan biltzen zaigu liburugintzaren hirulaurdena.

Falta den laurdena banatu behar da gainerako 18 sailetan.

Zeraz ari naizen? Euskaraz produzitzen den gehien-gehiena, lautik hiru libururu, hiru sail hauetako batean dago: haur/gazte literaturan, irakaskuntzan edo helduen literaturan. Beraz, literaturaren eta irakaskuntzaren artean banatzen da liburu-produkzio ia osoa. Zatiirik handiena, haur eta gazte literaturak hartzen du: hiru libururik bat haur eta gazte literatura izan da. Irakaskuntzak, bere aldetik, lautik bat hartzen du. Eta helduen literatura da hirugarrena, pixka bat beherago.

Zer esan nahi du honek? Honek esan nahi du, gazte jendearentzat idazten dela gehienbat euskaraz: % 58,5. Proporzioa ikaragarria da hau. Adierazgarria. Ez ote kezka garria? «Belaualdi galduaren» mamu hura egia bihurtzen ari ote gara emeki emeki?

Ni behintzat kezkatzen nau liburugintzan urterto urterto desoreka bera ikusteak. Sail gutxi batuztan pilatzen da produktzioa, eta sail gehienak huts-hutsak edo ia hutsak daude. Adierazgarritzat jotzen dut nik pertsona hazi eta helduentzat, literaturaz aparte, horren gutxi argitaratzea. Liburugintza, azken batean, diglosiaren ispilu garbia gertatzen zaigu. Martxa honetan, filosofian, politikan, historian eta ia kultur arlo guztietan erdaraz irakurtz jarratu beharko dugu. Noiz arte?

# Harresiak

INAIA URIA



ERORI ziren Berlingo harresiak. Autodeterminazio eskubidea erabili egin zuten Alemanian, Estonian, Letonian eta Lituania burujabetzaren alde.

de burruka egin zuten. Eslovenian eta Kroazian ere independentzia jo dute erreferendumak egin eta gero.

Harresi asko erori dira urtebeteren buruan. Eki Europako estatu-naizioak deuseztu eta berriak sortzen ari zaizkigu begi bistan. Abiadura bizian.

Harresi berriak ere altxa dira urtebete honetan. Europako Legebiltzarrek ere kontrolatzen ez dituen Schengen eta Treviko politikak, harresiak jaurti dizkiete goserik ala politikagatik iheslari direnei. Hasianen hatzaparretara bidali du Frantziak Diuri idazlea, euskaldun iheslari mordoa Barrionuevoren eskutara bidali zituen bezalaxe.

Eki Europako harresiak erortzen baino gehiago kostako da Europa Batuko harresiak eraikitzea. Are eta gehiago Europako alde honetako estatuetan ere nazioek askatasunerako zirikatuak zabalzen badituzte.

Herrien Europa ala Estatuon Europa eraikiko da. Ez biak batean. Euskaldunok, abiada bizian, erabaki beharrean gaude ze Europa nahi dugun. Espainia eta Frantzia barruan euskaldunon artean harresiak mantenduko dituen Europa, ala bere buruaren jabe izango den Euskal Herri batua onartuko duena.

Oker dabil galdera horrek zentzurik ez duela eta European barruan gaulela erabakita dagoela usie duenak. Euskaldunoi ez bait zaigu galdetu ere egin zer nahi dugun. Eta askotan ari da gertatzen galdetu gabeko gauzak ari zaizkigula inposatzen demokraziazaren izenean.

Eslovenian, askatasunerako prozesua ez zuten abertzaleak piztu, demokrazia faltak baizik.

Hemen, ezinbestekoa da harresirik gabeko eztabaida.

# EL CORREO ESPAÑOL

## Autodeterminazioa eta lurralde osotasuna


Egungo Europa erdi-ekialdeko gatazkek, eta batez ere Jugoslaviakoak, konfirmatzen dute lurralde horretako bakea eta aurrerapidea —banaezinak Europako gainontzeakotatik, Espainia barne— beharrezkoa dutela diziplina bat, amaituko duena dogmatismo, bikoiztasun eta fanatismo nazionalistekin, benetako maisuak bapatean biktimak borroko bihurtzeko artean.

Horrek behartzen ditu presio eraginkorra, morala eta materiala egiteko moduan daudenak, ahalgintzera itenbide bat bilatzen, herritarren borondatea errespetatuta, segurtasun juridiko baten eremuan egongo dena, eta bateragarria izango dena ereka egonkor bat ezartzearekin.

Horrela ez dira izango erraiztako eta indarkeriako nazionalismoek amestutako utopia kontraesankorrak, marxismo-leninismoaren eta horren inguruko utopiek hutsik utzitako tronoak beteko dituztenak.

JOSE MIGEL DE AZAOLA / 1991-VII-15

# HEMEROTEKA



ITURRIA / SUD OUEST / 91-VII-15

## Diario 16 Schengeniarrak

Herriek eta hiritarrek mugik ez izateko eskubide azalekoaren azpian, bada, mugarik gabeko Politzia sartu da. Posible da —iragarri bezala— hasieran, soilik estradi-tableak eta atzerriarrak bakarrak fitxatzea, eta hori berez diskutigarria izango litzateke (atzerriarrasusmagariaren sinonimoa da), baina esperientziak erakusten digu fitxatuzko askoz gehiago izan daitezkeela, izan ere, nazioarteko

Polizia horrek ia askatasuna osoa izango luke horretarako.

Baina Schengen taldean sarritan bada beste kontrapartidarik: proiektuak aurkikutsa dituzten asilo eskubideari muga zorrotzak jarritzea. Izan ere: hiritar batek asilo eskubidea eskatzen bada akordioa izenpetutako herrien batean, eta ukatu egiten bazaio, ezingo du eskatu talde horretako besteren batean. Schengeneko sistema informatikoak ezezkoo ordenagailuan jarriko du, eta asiloa eskatutako errefuxiatua bere jaioterrira itzuliko dute, ustez ihes egin duena bizitza edo askatasuna sal-

batzeagatik. Ustezko mugak irekitze horrek, beraz, traba gogorak izango ditu behartsuenentzat. C.PERI ROSSI / 1991-VII-15

# LAVANGUARDIA

## Iskanbilak

Esloveniatik etortritako arnas gartsuarekin dator notizia berria: gure herria ere izan daiteke independentientea. Independentiek beren alde dute diskurtsoaren logika, baldin eta logikak zerbitai esan nahi badu politikan. (...)

Lider konbergenteak eta hurbileko intelektualek erantzun egin diote arazoari independentistaren erasoari. Komenientzira egindako ezkontza da erabilitako terminoa erdi mailako hautesleek entzundu nahi dutena adierazteko: garena gara eta gaudenean ondo gaude. Argi dago ez dela maite arrastaka aldarera garamatzen Espainia hau. Itusienarekin ez-kondu nintzen, baina artean negoziatio zegoen, dio mezuak, erabat ulergarria ulertu behar duenarentzat. Eta kupula konbergenteko katolikoentzat ezkontza, heriotzak banandu artekoa da. Gauzak konplikatu ezean eta Ekialdeko nazionalismoekiko hain sentikorra den Aitasantu honak, maitasunik gabeko ezkontza apuritzeko baimena eman ezik.

JOSEP RAMONEDA / 1991-VII-15

# ZUZENDARIARI

## Zenbat hipokresia!!

Egun hauetan, sarritan entzuz eta irakurri ditugu, PNVko eta EAKo hainbat buruzagik, Eslovenia eta Kroaziari buruz eginiok adierazpenak. Hemen doazkizue horietako batzu:

— Jugoslaviako Armadak erretiratu egin behar omen du.

— Eslovenia eta Kroaziako herrien erabakia eta borondateak errespetua merzei omen dute.

— Esloveno eta Kroaten portatera, miresgarria omen da euskaldunontzat.

— Mugak ez hausteko printzipioa ezin omen da ezkondu nazioen askatasunarekin.

Esaldi borobilak! Bapo mutilak! Bejondizuela! Eta hemen, etxean zer? Zergatik aldatzen dituzue betaurrakoak? Edo kanpoan uso eta etxean otso?

Ikus dezagun: — Euskalherriak onartu ez zuten Konstituzio baten barruan dagoen Gernikako Estatu-tutua (independentziaren aurkako txerturik hobereana, Ordoñez Ministroak diotenez)

defendatzen duzue.

— Helburu nagusienetarikoa, «la sagrada unidad de la Patria» defendatzea duen Espainiako Armadaren (soldadua apurtzeko eta hiltzeko makina) indarkeria ez duzue inoiz salatzen. Eta gamera, piper potoak oparitzen dizkizue; errespetu eta zere-monioa guztiarekin, noski.

— Geure presoak eta errefuxiatuak, gaurko gudariak, Estatu Espainolaren indarkeriaren aurka eta Euskal Herriaren independentziaren eta askatasunaren alde zutitu zirenak, eta zutituko direnak (eskove-noak, kroatak, palestindarrak..., zutitzen diren bezala) terroristak omen direla, esaten duzue. Jauregi, Corcuera, Casinello... eta horrelakoekin batera, esan ere.

Zuek hemen, etxean, nazioen askatasuna defendatzeko ordez, mugak ez mugitze printzipioa defendatzen duzue. Horretarako indarraren arazoia erabiliaz.

Baina, alfer-alferrik ari zarete. Zeren, jakin behar zenuket: Bere ordua heldu zaion idea edo proiektu bat baino indartsuagorik ez ez dagoela. Eta Estaturik gabeko

nazioen independentzia ordua heldu dela; Euskal Herria eta Estatu Espainolaren arteko gatazkari iriteera politiko negoziatioa aurkitzeko ordua heldu den bezala.

Utz itazue demagogiak. Eta (Eslovenian eta Kroazian bezala) adorez, bultzaz itazozue Euskal Herriko independentziaren gurdia. Hori bait da Euskal Herriak nahi duena.

GOIKO BILBO

## Oharra:

Eritzi eberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makina; idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idefonia, helbidea eta Nortasun Agiriaren zerbakia argi eta garbi agertu beharko dira gurean. Laburtu beharra izanez gero, zuzendaritzak bere esku izango du horretarako eskubidea.

# PERTSONAIA



## George Bush

Bush indarrean dago nabari da egiz aginte egaritz Mitterrandekin lagun bezala eseriz Saddam Hussein daukate harturikan begiz honek izan lezaken bonbaren inbidiz prest omen daude Irak birrintzeko berriz.

ANTTON KAZABON

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE  
Kontseilu Editorialeko Lehendakaria: JOAN MARI TORREALDAI  
Kontseilari Ordezkarria: JOSE MIEL ZUMALABEA  
Gereatea: INMA GOMILA

Zuzendaria: PELLO ZUBIRIA  
Zuzendariordeak: NEREA AZURMENDI, LUZIAN ETXEZAHARRI, INAKI URIA  
Publizitatea: KORNELIO ROTETA

# Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E  
Lege Gordailua: SS 800/90

HELBIDEAK  
Egoitza soziala, Pulizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57  
Erredakzioa eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabiloak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎: 37 15 45 / Faxa: 36 54 93  
Arabara: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73  
Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎: 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77  
Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuna, / 48002 Bilbo / ☎: 423 90 62 / Faxa: 423 94 60  
Lapurd / Nafarroa Behera / Zuberoa: 2. Galuperia kaia, / 64100 Baiona / ☎: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11